

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen proiektua onartu du Gobernuak

*Helburu nagusia da kultur eskubideak erabat aitortzea funtsezko eskubide gisa*

Asteazkena, 2018.eko irailak 19

Foru Gobernuak, gaurko bilkuran, Nafarroako Kultur Eskubideen Foru Legearen proiektua onartzen duen erabakia hartu du, eta horren lehentasunezko helburua da eskubide kulturalak erabat onartzea funtsezko eskubide bezala. Hemendik aurrera, testua Nafarroako Parlamentura bidaliko da, han eztabaidatu, eta, hala badagokio, ondoren onar dezaten.

Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuak aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egin zen, eta Nafarroako Artxibozainen Elkarteak eta Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarteak sinatutako bi ekarpen aurkeztu ziren. Behin aurreproiektua eginda, berriro jendaurrean jarri zen, eta zortzi erakunde eta partikularren alegazioak jaso zituen. Horrez gain, Departamentuak parte hartzeko bestelako jarduera osagarriak burutu zituen; hala nola, jardunaldiak, bilerak eta kontsultak.

### Proiektuaren helburuak

Proiektuaren helburua da kultur eskubideak ziurtatzea eta sustatzea, politika kulturalak sustatuaz, kulturaren balioa ondasun erkide bezala, kultura eskuratzeko eskubideak eta bizitza kulturean parte hartzekoak defendatzeko, gizarte berdinagoa eta demokratikoagoa eraikitzeko zutabe gisa.

Zehazki, arauaren helburuak hauek izango dira: gaiaren inguruan lege sektorialetarako esparrua ezartzea; kultura eskuratzekoan berdintasuna izateko baldintzak ezartzea; kultur eskubideen balioa ezinbesteko oinarri bezala adieraztea; eta Nafarroako kulturaren eta hizkuntzaren dibertsitatea, identitateen aniztasuna, ondare ukigarria eta ukiezina sustatzea eta babestea, e.a.

Halaber, arauaren asmoa da herritarrentzat oro har nahiz artista, sortzaile, kudeatzaile, sustatzaile eta profesionalentzat ez ezik, arloan eskumena duten herri administrazioentzat ere, kultur eskubideei balioa ematea, XXI. mendean kultur politikako testuinguru berritzaileak eta aurreratuak sortuaz.

Era berean, esparru instituzional bat ezarri nahi da, kulturaren kudeaketa publikoan gardentasuna eta erantzunkidetasuna bermatzeko eta herritarren eta sektorearen parte-hartzea errazteko politika kulturalak sortzerakoan eta haien inpaktua ebaluatzerakoan.

Europa mailako eta Estatu-mailako testuinguruetan ez dago era

horretako ezaugarriak dituen araudirik, eta, beraz, Lege hau abian jarrita, hutsune horri erantzuna emango litzaioke. Arauaren asmoa da kultur politikei balioa ematea kultur eskubideekin lotura baitute, eta herri administrazioen betebeharrak ezartzea kultur eskubideei dagokienean.

### **Testuaren edukia**

Sei titulu, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapenaren bitartez, Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen proiektuan jaso da, besteak beste, kulturara iristeko eta bizitza kulturalen parte hartzeko eskubidearen, eta, zehatzago esanda, Nafarroako Kultur Ondareko ondasunetara iristeko eskubidearen arauketa. Halaber, zentro kultural, museo, artxibo, liburutegi, antzerki, auditorio, kultur ondarea osatzen duten ondasun eta, oro har, edozein kultur ekipamenduetarako sarrera fisikoaz gain, informazioen teknologien bidezko sarrera birtuala ere jasotzen da.

Bestalde, sormen artistikoa eta literarioa eta ikerketa zientifikoa kontuan hartu dira. Sormenerako nahiz ikerketarako askatasuna nahiz administrazio publikoek eremu horietan hori sustatzea eta hedatzea ezartzen da.

IV. Titulua administrazio publikoek kultura arloan duten erantzukizunari buruzkoa da; bertan, kulturaren eskumena duen Departamentuak Foru Legearen helburuak betetzeko eta bertako eskubideak eta printzipio inspiratzaileak behar bezala aitortzeko eta gauzatzeko garatu beharreko jarduerak, neurriak eta programak ezartzen dira.

Horrez gain, V. Tituluan, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua arlo horretako erakunde aholkularia dela esaten da, Nafarroako Kultura Kontseiluaren ondorengoa, eta haren funtzioak aipatzen dira, osaera ezartzearekin batera.

Azkenik, VI. Titulua kultura arloan eskumena duen departamentuak kultur politikak finantzatzeari buruzkoa da. Laguntzak eta diru-laguntzak jarriko ditu, mezenasgo kulturala hedatu eta ekintzaile kulturalentzat funtsak sortu eta kreditua lortzeko bideak emango ditu.